

Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña Azaroak 10 noviembre 20:00 h. ____ Concierto nº 2425




EUSKADIKO
ORKESTRA

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA



Gaurko kontzertua

El concierto de hoy

JUVENILIA. Mendelssohn nahiz Milhaud —biak ere arbaso judaíos—, hori kasualitatea!— oso gazteak ziren hemen ordezkatzenten dituzten obrak sortu zituztenean. Alemaniarrak hamabost urte zituen Weber eta Schubert eredutxat hartuta eta harirako hamabi sinfoniekin lortutako esperientziaz, orkestra sinfonikorako asmo handiko zikloari hasiera eman zionean. Lehen aldiz arrakasta handia eman zion obran, konpositore franceses Hego Amerikako dantza-doinuak eta melodía personalak uztartu zituen, komikotasun handiz. Denboran eta geografian gertuago dugun Aldave nafarrak, oihartzun herrikoi samurren artean, haurtzaroa gogoratzen du, bere piezarik finenetako batean.

JUVENILIA. Tanto Mendelssohn como Milhaud -ambos, curiosamente, de ascendencia judía- eran muy jóvenes cuando crearon las obras que aquí los representan. El alemán contaba quince años cuando inauguró, bajo el signo de Weber y Schubert y con la experiencia adquirida en sus doce sinfonías para cuerdas, su ambicioso ciclo para orquesta sinfónica. En el que sería su primer gran éxito, el francés amalgamó con innegable comicidad aires de danza sudamericanos y melodías personales. Más próximo en el tiempo y en la geografía, el navarro Aldave evoca, entre delicados ecos populares, el mundo de la infancia en una de sus piezas más refinadas.

Hemen jarrai ahal izango
diguzu / Síguenos en:



Y suscríbete al nuevo Euskor digital en

www.euskadikoorkestra.es

webgunean izena eman
Euskor digital berrian

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana

Egitaraua / Programa

Pascual Aldave (1924-)

Nerabe sorta, opus 33 [26']

- I. Amaren ametsak / Los sueños de la madre
- II. Seaska kanta / Canción de cuna
- III. Aurraren jolasketak / Los juegos del niño
- IV. Amaren maitasuna / La ternura de la madre
- V. Ama ta semetxoaren yosta dantza /
Danza del juego de la madre y el hijo

Darius Milhaud (1892-1974)

Le boeuf sur le toit, opus 58a [19']

2

Felix Mendelssohn (1809-1847)

Sinfonía nº1 en do menor, opus 11 [37']*

- I. Allegro moderato
- II. Andante commodamente
- III. Scherzo: Allegro non troppo
- IV. Finale: Allegro moderato

*Lehen aldiz interpretaturiko obra / Obra interpretada por primera vez

Waldemar Machmar
kontzertinoa / concertino

Iker Sánchez
zuzendaria / director

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Egitarauari Oharrak

Notas al Programa

Nerabe Sorta, opus 33


Pascual Aldave - Lesaka, 12 de junio de 1924

Pascual Aldave Lesakan jaio zen, eta Francisco Escuderoren konposizioko ikasle jardun zuen Donostiako Kontserbatorioan 1954an Parisera lekualdatu aurretik. Han, disciplina horretan zaildu zen Nadia Boulanger-ekin eta orkestazioan Jean Françaixekin. 1973an Espainiara itzultakoan, Aldavek konposizioan eta irakaskuntzan (Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioko zuzendarri eta irakasle izan zen) zein abesbatza-zuzendaritzan jardun zuen aldi berean. Musikari nafarraren sentikortasun zaindua, tinbre fina eta eskarmantua agerian geratzen dira batez ere abesbatza-erreptoririora lerratzen den katalogoan.

1990 urtekoa, bost mugimendutan zatituta eta -urreko *Oi Bethleem* bezala (1980)- hari-orkestrarako atondua, *Nerabe sorta* haur-suitea seme-alabei Lesakako amek abestutako doinu herrikoietan oinarritzen da batez ere. Tentsioa eta misterioa faltan ez dituen lehenengo mugimendurako (*Amaren ametsak*), Aldavek amek seme-alabei, umeek hil gutxi batzuk baizik ez dituztela, mugimendu xelebre batez eskua jiratzen ikasteko oraindik ere darabilten abesti bat erabiltzen du. “Doinu horren bidez -muskariak azaldu duenez-, amak artean jaio ez den umearekin dituen ametsak eman nahi ditut aditzera. Seaska-kanta giro gozo eta ameslarian murgiltzen bide da. Bertan, doinu herrikoieit hertsiki lotutako bost diseinu doaz segidan, eta “instrumentu eta tesitura desberdinetan agertzen dira, intentsitate eta mailaketa desberdinak dituztela ere. Bukaieran, erritmo monotonoen eta klimax harmonikoaren ondo-

Nacido en Lesaka, Pascual Aldave fue alumno de composición de Francisco Escudero en el Conservatorio de San Sebastián antes de trasladarse en 1954 a París para perfeccionarse en esta disciplina con Nadia Boulanger y en orquestación con Jean Françaix. Desde su regreso a España en 1973, Aldave compaginó la composición con la docencia (fue director y profesor del Conservatorio Pablo Sarasate en Pamplona) y con la dirección coral. La depurada sensibilidad, finura tímbrica y excelente oficio del músico navarro se manifiesta en un catálogo que, con preferencia, se inclina hacia el repertorio coral.

Fechada en 1990, dividida en cinco movimientos e instrumentada -como la anterior *Oi Bethleem* (1980)- para orquesta de cuerdas, la suite infantil *Nerabe sorta* está basada esencialmente en las melodías populares que las madres de Lesaka cantan a sus hijos. Para el primer movimiento (*Los sueños de la madre*), no desprovisto de tensión y misterio, Aldave utiliza una canción, aún hoy en uso, con que las madres enseñan a sus hijos a girar la mano en un movimiento gracioso cuando el niño tiene apenas unos meses. “Con esta melodía -explica el músico- trato de evocar los sueños de la madre con el hijo que todavía no ha nacido”. *Canción de cuna* aparece sumida en una atmósfera dulce y ensouledora. Se suceden en ella cinco diseños íntimamente ligados a la melodía popular, “los cuales están expuestos en distintos instrumentos y tesituras con



rioz, umea lo seko geratzen da". Urduria eta arina, *Aurraren jolasaketak* piezak aurreko abestiaren doinu- eta erritmo-zelula batez ontzen du bere diskurso laburra. "Umeak korri egiten du, behaztopatu, talka egin, hautsi, oihu, negar egin eta abar. Guztiak beldurtzen ditu harik eta zalaparta handiz erori, kaskarreko ederra hartu, eta zorabiatzen den arte". Lirismo sakona nagusi duela, laugarren mugimendua (*Amaren maitasuna*), sarrera labur baten ondoren, Aldavek Donapaleuko festa handi batean (Behe Nafarroa, Frantzia) bertsolari bati kantatzen entzundako doinu bat erakusten du. Doinu horrek euskal Andra Mariaren abestiak gogora ekartzen dituen musikagilearen beste doinu original batekin bat egiten du. Suitea *Ama ta semetxoaren yostaldantza* piezaz burutzen da: "rondó" formako mutil-dantza (gazteantzako dantza) bat da, tonu asaldatukoa eta ukitu herrikoi ugarikoa. Gai nagusia egilearen originala da eta hiru bider aurkezten zaigu tonalitate desberdinan. Lau atal ditu, eta bakoitz bi aldiz errepikatzen da, baita dibertimendu bat ere birritan. Lehenengo eta bigarren atalek dantza ezagun bateko zati bat biltzen dute. "Konpas horien justu ondoren -Aldavek dioenez-, *Mutil-dantzaren erritmoa* hautsi egiten da, eta *Alki-dantzak* (*Aulkidantzak*) ordezkatzen du". Dibertimendua burutzean, beste atal bat gehitzen da. Orduan, hiru akorde indartsuk jotzen dute, egileak bere jaioterriko Onin errekaren gaineko petrilean San Fermín egunean jauzika ari diren dantzariak gogora ekarri nahiko balitu bezala. Orkestrak pizzicato jotzen du *Zurrume-dantza* (*Orpo-dantza*) eta, gero, dibertimendua agertzen da bigarren aldiz. Koda moduan, Lesakako haur-kantu herrikoi bat sartzen da trufa-aldearte batez.

intensidades y gradaciones diferentes. Al final, debido al ritmo monótono y al clímax armónico, el niño se queda profundamente dormido". De carácter nervioso y ligero, *Los juegos del niño* elabora su breve discurso con una célula melódico-rítmica de la canción anterior. "El niño corre, tropieza, choca, rompe, grita, llora, etc. Atemoriza a todos hasta que se cae con estrépito, se da un grandísimo coscorrón y queda aturdido". Dominado por un profundo lirismo, el cuarto movimiento (*La ternura de la madre*) expone, tras una breve introducción, una melodía que Aldave oyó cantar a un *bertsolari* en una gran fiesta en St. Palais (Baja Navarra, Francia). Esta melodía se enlaza a otra original del compositor cuyo carácter le recordaba el de las canciones marianas vascas. La suite culmina con la *Danza del juego de la madre y el hijo*, una *Mutildantza* (danza de jóvenes) en forma de rondó, de tono agitado y abundantes ecos populares. El tema principal, original del autor, se presenta tres veces en distintas tonalidades. Tiene cuatro episodios que se repiten dos veces cada uno y un divertimento que aparece en dos ocasiones. Los episodios primero y segundo incorporan un fragmento de una danza conocida. "Inmediatamente después de estos compases -apunta Aldave-, el ritmo de la *Mutildantza* queda roto y sustituido por el de *Alkidantza* (danza de la silla)". Al término del divertimento se añade un nuevo episodio. Suelan entonces tres fuertes acordes con los que el autor trata de evocar los saltos de los *dantzaris* sobre los pretils del río Onin en su pueblo natal, el día de San Fermín. La orquesta interpreta en *pizzicato* la *Zurrume-dantza* (danza de talones) y, más tarde, el divertimento aparece por segunda vez. A modo de coda irrumpen una canción popular infantil de Lesaka, de signo burlesco.

Le boeuf sur le toit, opus 58a

Darius Milhaud - Marsella, 4 de septiembre de 1892 – Ginebra, 22 de junio de 1974

1917ko otsailaren 1ean, Darius Milhaud Rio de Janeiron lehorreratu zen Paul Claudelen idazkari-lanetan aritzeko, Claudel Frantziaren Brasilgo enbaxadore izendatu berrian. Aldi hori oinarrizkoa da bere idazkuntzaren garapenean, musikari gaztearen irudimena harrotu zuen, orduan oso erne baitzen eragin guztietara, eta zenbait lanetan aurki dezakegu aztarna hori, adibidez, *L'homme et son désir* (1918) eta *La Crédation du monde* (1923) baletetan, baita *Saudades do Brasil* (1921) eta *Le boeuf sur le toit* ezagunetan ere, azken hau Hego Amerikako herrialdean bi urte eman ondoren Milhaud behin betiko Parisera itzultitakoan 1919an ondutakoa.

Le boeuf sur le toit izenak (baina ez musikak, batzuetan uste ez bezala) Brasilgo abesti bat egiten dion erreferentzia eta Milhauden katalogoko lan gutxik bezala adierazten du Brasilgo herri-musikak, biziz, kolorez eta fantasiaz gainezka, Seien Talde kosmopolitako kide honen baitan piztu zuen lilura bizia. Oroitzapen hori gogoan, musikagileak “gai herrikoiak, tangoak, maxixak, sanbak eta fado portugaldarra ere” bildu ditu lan honetan, bere memorietan adierazi zuenez. *Le boeuf sur le toit* rondó moduan dago egituratuta eta, bertan, hamabitan baino gehiagotan berragertzen den errepika itsaskor bat dantzaren motibo desberdiniek txirikordatzen da. Charlie Chaplinen film mutu baten akonpainamendu-lana egiteko sortu zuen eta hortik dator, hain zuzen, biolin eta orkestrarako transkripzioetako “Cinéma-fantasie sur des airs sud-américains” azpititulua.

Milhauden lagun eta taldeko bozeramaile Jean Cocteau ez zuen ontzat jotzen ideia eta lana argudio zoroko, ia surrealista pantomima-ballet bihurtuko zuen eszenategi grotesko bat imajinatu zuen. Ekintza Estatu Batuetako taberna batean gertatzen da artean Lege Lehorren denboran (Estatu Batuetan alkohola saldu eta kontsumitzeko debekua, indarrean 1920ko urtarriletik, eta hizpidea jarri zuen); bada, bertatik, noraezean dabiltzan pertsonaias sorta bat pasako da: boxeolari bat, nano beltz

El 1 de febrero de 1917 Darius Milhaud desembarcaba en Río de Janeiro como secretario de Paul Claudel, recién nombrado embajador de Francia en Brasil. Este período, fundamental en el desarrollo de su escritura, exaltó la imaginación del joven músico, muy receptivo a todo tipo de influencias, y halló eco en obras como los ballets *L'homme et son désir* (1918) y *La Crédation du monde* (1923), las populares *Saudades do Brasil* (1921) y *Le boeuf sur le toit*, compuesta en 1919 tras el regreso definitivo de Milhaud a París después de su estancia de casi dos años en el país sudamericano.

Le boeuf sur le toit, cuyo título -no su música, como a veces se cree- alude a una canción brasileña, expresa como pocas obras en el catálogo de Milhaud la arrolladora fascinación que la música popular de Brasil, pletórica de vida, de color y de fantasía, ejerció sobre el miembro más cosmopolita del grupo de Los Seis. Con aquel recuerdo en su memoria, el compositor reúne en esta obra, como señala en sus memorias, “temas populares, tangos, maxixes, sambas e incluso un fado portugués”. Estructurado en forma de rondó en el que un pegadizo estribillo, que reaparece más de una docena de veces, se intercala con diferentes motivos de danza, *Le boeuf sur le toit* fue concebido originalmente para servir de acompañamiento a un film mudo de Charlot, de ahí el subtítulo de “Cinéma-fantasie sur des airs sud-américains” que acompaña a su transcripción para violín y orquesta.

Jean Cocteau, amigo de Milhaud y portavoz del grupo, desaprobó la idea e imaginó un grotesco escenario que convirtiera la obra en pantomima-ballet de argumento disparatado, casi surrealista. Así, la acción se desarrolla en un bar norteamericano durante la Ley Seca (la prohibición de venta y consumo de alcohol en Estados Unidos, efectiva desde enero de 1920, era entonces noticia) y por él desfilan un puñado de desorientados personajes: un boxeador, un enano negro, una mujer travestida y un

bat, emakume trabesti bat eta apustu-artekari bat, besteak beste. Zerbitzariak cocktails es-kaintzen dizkie guztiei ere, baina polizia hel-tzean, lokala esne-denda bihurtzen da. Haiza-gailu handi batek lepoa moztu dio agenteari eta emakumea, Salome berri bat bailitzan, buruarekin jolasten da. Pertsonaiek taberna utzi dute eta, azkenean, zerbitzariak faktura oparo bat aurkezten dio berpiztutako poliziari. Golschmann orkestra-lanetan, Dufyredek dekorazioa, Fauconneten jantziak eta katamaloak eta Fratellini pailazo ospetsuak eszenan zituela, *Le boeuf sur le toit* Champs-Elyséeseko Antzokian estreinatu zen 1920ko otsailaren 21ean. Eskandalua egundokoa izan zen inon-dik ere.

2.

Sinfonía nº 1 en do menor, opus 11

Felix Mendelssohn - Hamburgo, 3 de febrero de 1809 - Leipzig, 4 de noviembre de 1847

Mendelssohnen ziklo sinfonikoari hasiera ofiziala eman zion 1824ko konposizio honek hamahirugarren zenbakia zeraman jatorriz bere partitura autografoan. Hanburgoko musikari gazteak hamabost urte zituen orduan eta harietarako hamabi sinfonien testuin-guruan kokatzen zuen pieza hau. Sinfonia horien bidez, hain zuzen, Berlingo eskolako kontrapuntu-tradizio zaharra arakatu zuen 1821etik 1823ra. Sinfonia horiek Abraham Mendelssohn bankariak bere semearentzat Berlingo musika-elitearekin lankidetzen anto-latutako igandeko kontzertu pribatuetan eman zituen ezagutzen (*Sonntagsmusiken*), baina Eskoziarra lana onduko zuen egileak ez zituen konposizio horietarako Vienako klasikoak eredu hartu, Graun, Georg Benda eta, bereziki, Carl Philipp Emanuel Bachen pieza analogoak biltzen zituen eredu zaharragoa baizik. Ez da arraroa Zelter-ek, Bachen bigarren semearen azterzaile sakon eta miresle, bere ikasleari emandako konposizio-klaseetan, jarraitu beharreko eredutzat hartu izana. Orkestra handirako bere sinfonien lehenengoarekin, Mendelssohnek pauso izugarria eman zuen Berlingo estetika zaharra bazterzeko, doinu-

corredor de apuestas, entre otros. El camarero ofrece cocktails a todos ellos pero, a la llegada de un policía, el local se transforma en lechería. Un gran ventilador decapita al agente y la mujer, como una nueva Salomé, juega con su cabeza. Los personajes abandonan el bar y, finalmente, el camarero presenta una cuantiosa factura al policía resucitado. Con dirección orquestal de Golschmann, decorados de Dufy, vestuario y máscaras de Fauconnet y los famosos payasos Fratellini en escena, *Le boeuf sur le toit* se estrenó en el Teatro de los Campos Elíseos el 21 de febrero de 1920. Naturalmente, el escándalo fue formidable.

La composición que en 1824 inaugura de forma oficial el ciclo sinfónico mendelssohiano ostentaba originalmente el número trece en su partitura autógrafo. El joven músico hamburgués, que contaba entonces quince años, consideraba sin duda la pieza en el contexto de las doce sinfonías para cuerdas con las que, entre 1821 y 1823, había explorado la antigua tradición contrapuntística de la escuela de Berlín. En todas ellas, dadas a conocer en los conciertos privados dominicales (*Sonntagsmu-siken*) que el banquero Abraham Mendelssohn organizaba para su hijo en colaboración con la élite musical berlinesa, el modelo sobre el que trabaja el futuro autor de la *Escocesa* no es el de los clásicos vieneses sino el más antiguo en que se inscribían las piezas análogas de Graun, Georg Benda y, en especial, Carl Philipp Emanuel Bach. No es extraño que Zelter, profundo estudioso y admirador del segundo hijo de Bach, escogiera las obras de éste como modelo a seguir en las clases de composición impartidas a su alumno. Con la primera de sus sinfonías para gran orquesta, Mendelssohn da un paso de gigante -por la amplitud de sus temas melódicos, la ambición de sus estructuras

gaien amplitud, egitura formalen anbizio eta instrumentu-multzoaren tamainagatik eta, aldiz, beste eragin batzuei heldu zien modu erabakigarrian: Haydn, Mozart eta, batez ere, Beethoven, artean bizirik zela. Hartara, bere mintzaira berezia eta modernoagoa ondu zuen, garaitsu horretan bere garaikide Weber eta Schubertek jorratu zutenarekin bat etorri.

Allegro di molto luzea isuri beethovendar uka ezina daukan motibo batez hasten da; aldiz, do minorreko tonalitatean egon arren (Bonneko musikariaren *Bosgarren lanaren berdina*), ez du eduki tragicorik. *Andantean*, Mendelssohnk soinu finen behaketa-giro idiliko baten aldeko apustua egiten du; bertan, oparoak dira harien eta zuren arteko dialogoak gai nagusiko aldaera txiki modura. *Allegro molto* azpi-oharra dueila, *Menuetto* sutsuak Mozarten 40. *Sinfonien* mugimendu analogoa ekartzen du gogora. Haize-instrumentuek emandako trioaren kulkunka goxoa eta minuetaren itzulerako tinbalen etorrera, ordea, Beethovenen *Bosgarrenaren* ereduari lotzen zaizkio gehiago. Lehenengo mugimenduaren bulkada sutsuarekin bat etorri, amaierako *Allegro con fuoco*ak Mozartaren K. 550 ekartzen du gogora berriz. Klarineteak nabarmendutako doinu ederra apaintzen duten pizzicatoen ugaritasunak eta geroko fuga moduko garapenak soilik ukitu pertsonala gehitzen diote lan bikain (eta gutxietsi) honi.

Do minorreko 1. Sinfonia Mendelssohn familiaren aipatutako Berlingo igandeko arratsaldi musical batean eman zen ezagutzenra. Inglaterrara 1829an egindako bidaian, egileak Londresen zuzendu zuen lana, Elkarte Filarmonikoaren kontzertuetako batean. Ordu hartan, minueta 1825ean konposatutako *Harien zortzikotea*, op. 20aren scherzoaren orkestra-bertsio batez ordezkatu zuen. Arrakasta hain handia izan zen, non Mendelssohnk sinfonia erakunde horri dedikatza erabaki zuen; *The Harmonicon* musika-aldzikariak ondorengoa argitaratu zuen: “Aztergai dugun sinfonia konposizio mota horren jeinu batek sortu du, eta soilik hiru maisu handi horiek gainditzen dute [Haydn, Mozart eta Beethoven]. Aurreikusteko da bide beretik jarraituz gero talde horre-tako laugarrentzat hartua izango dela”.

formales y la magnitud de sus efectivos instrumentales- en el abandono de la vieja estética berlinesa y la determinante asunción de otras influencias -las de Haydn, Mozart y sobre todo Beethoven, aún vivo- que le permitan elaborar un idioma propio y más moderno, en sintonía con los que en esas fechas forjan sus coetáneos Weber y Schubert.

El extenso *Allegro di molto* se abre con un motivo impetuoso de indudable aliento beethoveniano que, pese a la tonalidad de do menor -la misma de la *Quinta* del músico de Bonn- carece de contenido trágico. En el *Andante*, Mendelssohn apuesta por un clima idílico y contemplativo de sonoridades delicadas en el que abundan los diálogos entre cuerdas y maderas a modo de variaciones sutiles del tema principal. Marcado como *Allegro molto*, el energético *Menuetto* trae a la memoria el movimiento análogo de la *Sinfonía nº 40* mozartiana. El suave balanceo del trío, protagonizado por los vientos, y la incorporación de los timbales en el regreso del minueto se acerca, sin embargo, al modelo beethoveniano de la *Quinta*. Partícipe del impulso ardiente del primer movimiento, el *Allegro con fuoco* final evoca de nuevo la K. 550 de Mozart. La profusión de *pizzicatos* que arropan la bella melodía expuesta por el clarinete y el posterior desarrollo fugado aportan ya un sello personal a esta sobresaliente (e infravalorada) composición.

La Sinfonía nº 1 en do menor fue dada a conocer en una de las citadas veladas domésticas de la familia Mendelssohn en Berlín. En el transcurso de su viaje a Inglaterra en 1829, el autor dirigió la obra en Londres, en uno de los conciertos de la Sociedad Filarmónica. En aquella ocasión sustituyó el minueto por una versión orquestal del scherzo del *Octeto de cuerdas*, op. 20, compuesto en 1825. El éxito fue tan grande que Mendelssohn decidió dedicar la sinfonía a dicha entidad y la revista musical *The Harmonicon* publicaría: “La sinfonía de la que hablamos proviene de un genio en este tipo de composición al que sólo superan esos tres grandes maestros [Haydn, Mozart y Beethoven]. Puede suponerse que si prosigue en esta vía, será considerado como el cuarto de esta filiación”.

Musika argudio La música como pretexto

“ Sentikortasun handi eta gustu zoragarriko, batzuetan Ravelen gertuko, baliatutako orkestra-aukera aberatsak egiten du Aldave berezi.

Dotado de gran sensibilidad y exquisito gusto, a veces cercano a Ravel, Aldave se distingue sobre todo por la riqueza de su paleta orquestal.”

A. Sagaseta

“ Tropikoek aztarna sakona utzi didate. Rion emandako bi urteek nire latinotasun naturala harrotu dute, paroxismora heltzeraino.

Los trópicos me han marcado profundamente. Los dos años pasados en Río han exaltado en mi toda mi latinidad natural, incluso hasta el paroxismo.”

D. Milhaud

“ Inoiz ez dut sentitu hain argi alemaniarra naizela bihotzez eta hala behar dudala beti jarraitu.

Nunca he sentido tan claramente que soy un alemán de corazón y que debo seguir siéndolo siempre.”

F. Mendelssohn

Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

Milhaud:
Le boeuf sur le toit

Orquesta Nacional de Francia.
Director: Leonard Bernstein.
EMI/Brilliant, 1976.

Mendelssohn:
Sinfonía nº 1

Orquesta de la
Gewandhaus de Leipzig.
Director: Kurt Masur.
Teldec, 1989.

Iker Sánchez

zuzendaria
director



1976an Irúnen jaioa, bertan tronpeta ikasteari ekin zion. Donostia, Bordele eta Münichen bereiztu eta Euskadiko Orkestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa edo Münchner Symphoniker orkestrekin lankidetzen aritu zen. 2004an zuzendaritzan jardutea erabaki zuen eta Jesús López Cobos, Arturo Tamayo edo Enrique García Asensio maisuen ikasle izan zen. V. Petrenko, R. Leppard, P. Mann, J. Mena, P. González, G. Herbig edo M. Jurowsky maisuen lankide izan da. 07/08 eta 08/09 denboraldietan BOS-eko zuzendari laguntzailea izan da eta orkestra honen hogeita hamar kontzertutik gora zuzendu ditu. Gainera Euskadiko Orkestra, Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa, Asturiasko Printzerria, JONDE, Gasteizko Ganbera Orkestra eta Donostiako Kamara Orkestra zuzendu ditu, azken honekin 2007an Orkestra Gazteen Bigarren Sari Nazionala eskuratu zuelarik. Denboraldi honetan L'Orchestre de Bayonne Côte Basque, Orquesta Joven de Valencia (Venezuela) edo Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa zuzenduko ditu.

Operaren alorrean, Hilario Extremiana/David Barberoren "Errauskine gorria" estrenatua du eta Wagner-en "Parsifal"-en zuzendari laguntzailea izan da Royal Liverpool Philharmonic Orchestrarek, Vasily Petrenkoren zuzendaritzapean, eta baita Fallaren "Maese Pedroren Erretaula" obran, Rafael Frübeck de Burgos maisuarekin. Gainera, XX eta XXI. Mendeetako musika zabaltzen duten hainbat talderen sortzaile eta zuzendari izan da, horien artean T.I. 04, Musikeneko instrumentu-taldea, KABOS Ensemble, CRE-ART PROYECT (Londres), musika zuzendari duen KRATER Ensemble. SMASH Ensemble-ren zuzendari gonbidatua da (Salamanca-París). F. Ibarroondo, T. Garbizu, G. Erkoreka edo J. C. Pérezzen lanak estrenatua ditu eta laister G. Lauzurikaren musika-lan bat estrenatuko du. 08/09 Denboralditik Euskadiko Kontserbatorioetako ikasleek osaturiko Euskalherriko Ikasleen Orkestraren musika zuzendaria da. Honekin Venezuelan barrena bira bat egin zuen Francisco de Miranda Gazte Orkestrarekin batera. Zenbait diska grabatu du VERSO, RTVE, RNE, EITB eta abarrentzat.

Nace en Irún en 1976, donde comenzará a recibir clases de trompeta. Se especializa en San Sebastián, Burdeos y Munich, colaborando con la Orquesta de Euskadi, Bilbao o Münchner Symphoniker. En 2004 decide dedicarse a la dirección de Orquesta y se forma con los maestros Jesús López Cobos, Arturo Tamayo o Enrique García Asensio. Ha sido asistente de directores como V. Petrenko, R. Leppard, P. Mann, J. Mena, P. González, G. Herbig o M. Jurowsky. Durante las temporadas 07/08 y 08/09 ha sido director asistente de la BOS, a la que ha dirigido en más de 30 conciertos. Además ha trabajado junto a la Orquesta de Euskadi, Sinfónica de Tenerife, Principado de Asturias, JONDE, Donostiako Kamara Orkestra (con la que obtuvo en 2007 el II. Premio Nacional de Jóvenes Agrupaciones), la Orquesta de Cámara de Vitoria... En la presente temporada se pondrá al frente de la L'Orchestre de Bayonne Côte Basque, Orquesta Joven de Valencia (Venezuela) o la Sinfónica de Tenerife.

En el terreno de la ópera ha estrenado "La Cenicienta Roja" de Hilario Extremiana/ David Barbero y ha participado como director asistente en "Parsifal", de Wagner, junto a la Royal Liverpool Philharmonic Orchestra dirigida por Vasily Petrenko, así como en el "Retablo de Maese Pedro" de Falla junto a Rafael Frübeck de Burgos. Además, ha fundado y dirigido diferentes conjuntos instrumentales dedicados a la difusión de la música de los siglos XX y XXI: T.I. 04, Conjunto Instrumental de Musikene, KABOS Ensemble, CRE-ART PROYECT (Londres) y KRATER Ensemble, del que es director musical. Es director invitado de SMASH Ensemble (Salamanca-París). Ha estrenado obras de compositores como F. Ibarroondo, T. Garbizu, G. Erkoreka o J. C. Pérez y próximamente estrenará una obra de G. Lauzurika. Desde la temporada 08/09 es director musical de la Orquesta Sinfónica EIO (Euskalherriko Ikasleen Orkestra), creada por alumnos de los Conservatorios del País Vasco y con la que ha realizado una gira por Venezuela junto a la Joven Orquesta de Venezuela Francisco de Miranda. Ha grabado diferentes discos para sellos como VERSO, RTVE, RNE, EITB...

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin hurremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la nueva programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | www.euskadikoorkestra.es

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Azaroak

30

Noviembre

L.V. Beethoven

Sinfonía nº9, "Coral"

Andrés Orozco-Estrada

Zuzendaria / Director

Ainhoa Garmendia

Sopranoa / Soprano

Itxaro Mentxaka

Mezzosopranoa /

Mezzosoprano

José Ferrero

Tenorea / Tenor

Attila Jun

Baxua / Bajo

Sociedad Coral de

Bilbao

(Zuz./Dir. Julio Gergely)

**Sarreren
salmenta**
**Venta de
entradas**

Auditorio Baluarte Auditorioa

Taquilla/leihatila, tel.: 948 06 60 60

Astelehenetik larunbatera 11:00etatik
14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

De lunes a sábado en horario de 11:00h a
14:00h y de 17:00h a 20:00h.

ServiCaixa: 902 33 22 11

ServiCaixaren kutxazainetan

En los cajeros de ServiCaixa

www.baluarte.com

www.euskadikoorkestra.es

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA